



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Hezkuntza Zerbitzua

Zabalana UHE



## ZABALGANAKO UDAL HAUR ESKOLAKO COVID-19AREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

**2021-2022 IKASTURTEA**

**2021KO URRIAREN 19A**

## SARRERA

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatzeko, 2021-2022 ikasturterako ondorengo neurriak diseinatu dira honako hauek kontuan hartuta: egungo egoera epidemiologikoa, eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren berrikuspena, txertaketa-kanpainaren bilakaera eta 2020-2021 ikasturtean Udal haur-eskolen sarean jarduera presentziala eta haren kudeaketa garatzeko hartutako esperientzia.

## OINARRIZKO DOKUMENTUAK

- Guía de actuación ante la aparición de casos de COVID-19 en centros educativos. Gobierno de España (14/04/2021)  
[https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia\\_actuacion centros educativos.pdf](https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion centros educativos.pdf)
- Preguntas y respuestas sobre la vuelta al cole. Gobierno de España (27/04/2021)  
[https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/2021\\_04\\_27\\_Preguntas\\_y\\_respuestas\\_sobre\\_la\\_vuelta\\_al\\_cole.pdf](https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/2021_04_27_Preguntas_y_respuestas_sobre_la_vuelta_al_cole.pdf)
- Medidas de Prevención e Higiene y Promoción de la Salud frente a COVID-19 para centros educativos en el curso 2021-2022. Gobierno de España (29/06/2021)  
[https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Medidas centros educativos Curso 2021\\_2022.pdf](https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Medidas centros educativos Curso 2021_2022.pdf)
- Eskola-jarduera eta koronabirusa. 2021-2022 ikasturtea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila  
<https://www.euskadi.eus/informacion-sobre-el-coronavirus/web01-s2hhome/es/>
- COVID-19ren aurrean jarduteko orokorra ikastetxeetan, 2021-2022 ikasturtean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021-10-07)  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa\\_coronavirus/es\\_def/adjuntos/2021\\_2022/2021\\_10\\_07\\_protocolo\\_general\\_2021\\_2022\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/es_def/adjuntos/2021_2022/2021_10_07_protocolo_general_2021_2022_c.pdf)

## 1. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRIAK ETA OSASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

- **Pertsonen artean 1,2 metroko segurtasun-tartea mantentzea.**
- **Maskarak erabiltzea**, 6 urtetik beherakoak izan ezik.
- Sarreran egongo den **gel hidroalkoholikoa** erabili beharko dugu **eskuak garbitzeko** haur-eskolako instalazioak ukitu aurretik.
- Heldu eta haurren **eskuen garbiketa** maiztasunez egitea.
- **Espazioak maiz aireztatzea**
- **Espazio eta materialen garbiketa eta desinfekzioa** sarritan egitea.
- **Kontaktu-kopurua murriztea**
- Eskolako sarreran haurren tenperatura hartuko da, urrutiko tenperatura hartzeko termometroaren bidez. Norberaren erantzukizunari helduz, **etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da** eskolara joan aurretik, eta ez dira etorriko sukarra (>37º) edo COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten **haurrak**.
- Haur batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu, gelako gune batean isolatuko dugu eta familiari jakinaraziko zaio jaso dezan. Osasun-agintaritzaren gomendioei jarraituko zaie.
- Haur bat Covid positiboa bada familiak eskolari jakinaraziko dio. Aldi berean, eskolak Hezkuntza Zerbitzuko teknikariari jakinaraziko diegu eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunaren gomendioei jarraituko diegu.
- Eskolara ez da inor etorriko (haur, senide, hezitzaile, zerbitzuetako langile, enpresetako langile, praktiketako ikaslerik...) COVID-19 diagnostikoaren bidez

isolatuta badago, edo etxean berrogeialdian badago COVID-19 diagnostikoa duen pertsona batekin harreman estua izan duelako.

- Haur-eskola bakoitzean, Covid arduradun bat izendatuko da. Arduradun hori zuzendaria izango da, eta bera ez dagoenean beste pertsona bat izendatuko du.
- Familia-eskola harreman estua sustatu behar dugu, hezkuntza komunitate osoaren osasuna bermatzeko. Helburu hori lortzeko, bi aldeek harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak emango dituzte eta konpromisoa hartuko dute Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako jakinarazpen eta jarraibideen berri emateko.
- Gela bakoitzean Covid erregistro bat egongo da. Bertan, egunero, honako hauek jasoko dira: haurraren asistentzia, eguneroko ordutegia, eta zein heldurekin sartzen eta irteten den.

## **2. ESKOLAKO ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO NEURRIAK**

### **2.1. HARRERA EGITEKO ETA ESKOLA-BIZITZARA OHITZEKO GARAIA**

- **Harrera-garaian** hurrengo irizpideak jarraitu ditugu:
  - Eskolara heldu bakarra etorriko da haurra lagundu eta jasotzeko.
  - Familiak modu mailakatuan etorriko dira, espazio berean gela desberdinetako familiak ez pilatzeko.
  - Gela bakoitzean, soilik familientzako espazio mugatua sortuko dugu, ahal den heinean haurrak eta hezitzaileak ez dira bertara sartuko, eta egunero ondo garbituko da familiak joan ondoren.
  - Lehenengo egunetan, ordubeteko egonaldiko hiru talde egingo ditugu, talde txikiak eginez (sehaska-gelan talde bakarra, urte bateko geletan 4-5 ume eta bi urteko gelan 5-6 ume).
  - Pixkanaka, gela bakoitzeko taldeak elkartuz joango dira.
  - Bai sarreretan bai irteeretan ez dira elkartuko gela desberdinetako familiak.
  - Familientzat igarobide-zirkuitu argiak eta ondo markatuak sortuko ditugu, pilaketak saihesteko. Sarrerak eta irteerak sarrera nagusitik egingo dira, ordutegi desberdinetan. Pilaketak saihesteko, lerroak markatuko dira lurrian, sarrera eta irteeraren norabidea adierazita.

### **2.2. SARRERAK ETA IRTEERAK**

- Bai sarreretan, bai irteeretan, korridore eta esekitokietako seinaleak errespetatuko dira, une oro pilaketak saihestuz.
- Urritik aurrera, goizeko sarreran (08:00-09:30), familiak seme-alabekin datozenean, ate nagusitik sartu eta atzeko atetik irtengo dira. Gainontzeko irteerak (12:30-13:00/13:20.13:30/15:15-16:00) ate nagusitik egingo dira. Ordu hauetan, sartzeko eta irteteko ate bakarra izaten dugu, pertsonen fluxua txikiagoa delako. Pilaketak ikusiz gero, antolaketa aldatuko dugu.
- Jarduera garatzeko funtsezkoak diren langileak baino ez dira sartuko. Eskolan sartu ohi den edozein profesionalak (hezitzaileak, zerbitzuakoak eta praktiketako ikasleak, hala badagokio) edo noizean behin hezkuntza-programak edo ikerketa-proiektuak edo beste enpresa eta jarduera batzuk garatzeko sartzeko sartzeko zentroan ezarritako segurtasun-neurriak hartuko dituzte.
- Zentroko zirkulazio-fluxuak seinaleen bidez mugatuko dira.
- Sarrera eta irteera mailakatuak izaten dira. Segurtasun-tartea mantentzen da momentu guztietan. Irteteko eta irteteko ordutegiak aldatuko ditugu beharrezkotzat jotzen badugu.
- Sarreretan zein irteeretan, ikaslea utzi eta jasotzen duen unean, helduari beste seme-alaba adingabe batekin sartzeko baimena emango zaio. Helduak ziurtatuko du bere seme-alaba adingabeak egungo distantziaren eta segurtasunaren neurriak betetzen dituela. Ezin izango da gelan sartu eta ate ondoan geratuko da.
- Eskolako sarrera guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da eta eskuak garbitu beharko dira ikastetxera sartu aurretik.

### 1.3. EGUNEROKO EKINTZAK (GELETAKO FUNTZIONAMENDUA ETA BURBUILA-TALDEA...)

2021-2022 ikasturte hasieran, sei talde izango ditugu: sehaska-gela bat, urte bateko hiru , eta bi urteko bi.

- Gelak talde egonkorak izango dira, bi tutorerekin. Sarrera eta irteera gelako tutore batek egingo du. Ahal den neurrian, gela ezberdinetako haurrak ez ditugu elkartuko. Haurren ordutegiak jakitean ezarriko ditugu tutoreen ordutegiak.
- Hezitzaile laguntzaileak behar diren momentuetan geletan sartuko dira (sarreretan, irteeretan, jantokietan laguntzeko...).
- Ahal den neurrian, hezitzaile laguntzaileek beren erreferentzia-gelak izango dituzte.

### 2.4. JANTOKIA ETA LO-KULUXKA

- Talde bakoitzak bere jantokia izango du.
- Talde bakoitzak bere lo-luluxka espazioa izango du: haur bakoitzak bere sehaska-hamaka erabiliko du.
- Salbuespen gisa, gela ezberdinetako hurrek espazio berean lo eta bazkaldu egiten badute espazio batean, haien arteko 1,2 metroko segurtasun-tartea mantenduko dugu.
- 1. eta 2. gelak lo-kuluxkaren espazioa konpartituko dute, beste espaziorik ez dagoelako. Beti leihoak irekita egongo dira eta ahal den neurrian distantzia mantenduko da.

### 2.5. KANPOKO ETA BARRUKO ESPAZIOEN ERABILERA

- Aireztapen naturala eta/edo mekanikoa erraztuko da ahal den lekuetan.
- Eskolako espazioak eta jarduerak taldeak ez batzeko moduan antolatuko dira. Espazioen eta taldeen banaketa taula batean jasoko dugu:
  - Aretoa goizean zehar bi taldek erabiliko dute. Talde bataren eta bestearen artean garbitzaileak espazioa garbitu eta desinfektatuko du.
  - Talde bakar batek erabiliko ditu psikomotrizitate-gela eta erabilera anitzeko gela egunean.
  - Patioak 3 esparru ezberdinetan banatu ditugu eta egunean talde bakoitzak esparru bat erabiliko du. Patioak ahalik eta gehien erabiliko ditugu umeak espazio ireki batean izateko.

### 2.6. ALDATOKIAK ETA KOMUNAK

- Talde bakoitzak bere aldatoki eta komuna izango ditu; beraz, hauetan ere talde burbuilak mantenduko dira.

### 2.7. FAMILIEKIKO ARRETA

- Familiek sinatuta aurkeztu beharko dute Udal haur-eskoletan jarduteko neurriak onartzen dituen dokumentu bat, honako hauek jasotzen dituena:
  - Udal haur-eskoletako COVID-19aren aurkako Kontingentzia Planean azaldutako prebentzio- eta higiene-neurriak onartzea. Neurri horien berri emango zaie familiei, osasun-agintaritzak eskudunak emandako jarraibideen arabera.
  - COVID-19arekin bateragarria den sintomarik ez duela eta COVID-19aren kasu probablea edo baieztatuarekin kontaktu esturik izan ez duela adierazten duen adierazpena, eta pertsona kalteberarentzat izan ditzakeen arriskuak ezagutzen dituela adierazten duena.
  - Osasun-egoera egunero berrikusteko konpromisoa eta ez bertaratzearen arrazoaia.
  - COVID-19ari buruzko baimen informatua, SARS-CoV-2k haurrarentzat eta haren bizikidetzatza-ingurunearentzat ezarritako epidemiaren testuinguruan eskolatzeak dakartzan arriskuei eta neurriei buruzko informazioa jaso izanari buruzkoa.
- Eskolara heldu bakarrak etorri behar du haurra lagundu eta jasotzeko.

- Haurra laguntzen duen pertsonak maskara erabili beharko du eskola osoan, bai barruko espazioetan, bai kanpoaldekoetan (jolastokian).
- Ez da baimenduko eskola-esparruaren barruan kotxerik. Egoera justifikatua duen familiaren batek haurraren kotxea uzteko eskatzen badu, eskaera baloratuko dugu. Onartuz gero, sarrerako espazioan, kotxea leku espezifikoan izateko lerroen markak jarriko genituzke.
- Haurrek ezin izango dira eskolara etxeko objektuekin edo jostailuekin joan. Txupeteak edo antzekoak erabiltzen baditu, zentroan bakarrik erabiliko ditu.
- Eskolara ezin izango da janaririk sartu, sehaska-gelan izan ezik. Goizean zehar, eskuak garbitzeko errutinak sortuko ditugu.

## 2.8. HEZITZAILEAK

- Kalerako arropa eta oinetakoak, eta lanerakoak ezberdinak izan behar dira; hortaz, haur-eskola barruan daudela laneko arropa eta oinetakoekin ibiliko dira.
- Langileen sarrera mailakatua izango da aldagelan pilaketak saihesteko.
- Bakoitzak komuneko espazioak eta materialak erabili eta gero, garbitzeko ardura hartuko du.
- Bazkaltzeko txandak desberdinak egingo ditugu zenbait espazio erabilita.
- Sartzerakoan maskarak eskura izango ditugu. Maskara higienikoak erabiliko dira kontaktuak helduen artekoak direnean, eta FFP2 motako maskarak hurrekiko harremanetan.
- Komunak eskolako langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte, salbuespenen batean izan ezik.
- Hezitzaileek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte, ez dute lanpostura joan behar eta arduradunari jakinaraziko diote. Sintomak lanpostuan agertzen badira, lantokiko arduradunari jakinaraziko zaio. Bi kasuetan Lehen Mailako Arretako medikuari deituko zaio, haren jarraibideak betetzeko. Laneko Osasuneko Unitateari jakinaraziko zaio baita Hezkuntza Zerbitzuari ere.

## 2.9. JANTOKIKO LAGUNTZAILEA ETA ZERBITZUA

Jantokiko laguntzailearen oinarrizko prebentzio-neurriak hauek dira:

- Higiene pertsonaleko neurri zorrotzak hartuko ditu: eskuak maiz garbitzea, maskara erabiltzea.
- Ez du eraztunik, eskumuturrekorik edo erlojurik erabiliko.
- Egunero eta beharrezkoa den guztietan laneko arropa garbituko du.
- Bazkariaren tenperatura eta laginak hartu eta geletako bazkaria prestatzen duen bitartean bera bakarrik egongo da sukaldian.
- Hurrekin ez du kontakturik izango. Talde bakoitzeko bazkaria gelako ate ondoan utziko du, orgetan, hezitzaileek har dezaten. Amaitzean, modu berean jasoko du, horrela hurrekin kontakturik ez du izango.
- Jantokiko laguntzaileak sukaldian dagoen bitartean, hezitzaile bakarra egon daiteke espazio horretan.

## 2.10. PRAKTIKETAKO IKASLEAK

- Udal haur-eskoletan praktiketako ikasleak onartu ahal izango dira, baldin eta hartutako prebentzio-neurriek beren jardura garatzeko aukera ematen badute.
- Praktiketako ikasleei haur-eskolako Kontingentzia Planaren berri emango zaie, eta Kontingentzia Plana errespetatu eta haren arabera jarduteko konpromisoa hartuko dute.